

Ernioko kablea baserriko ingeniari lana

Duela mende inguru belarra eta egurra eramateko kablea erabiltzen hasi zirenean, ederki arindu zituen horrek mando askoren bizkarrak eta baserriarren buruhaustea. Ernioko egur kableak (1945-1950) bost urte iraun zituen txirrikaren soinu-dardara ateratzen. Ataungo Artaditxulo baserriko Bixente Eskisabel izan zen horren ingeniari artista. Horra bere historia.

URKO APAOLAZA

MEATZARITZAN eta beste zenbait industrian kablearen erabilera aspaldikoa da. Baserrian ordea, ez da asko garraio modu hori erabiltzen dela. Lehenengo belar kablea 1920 inguruan jarri zuen Bixente Eskisabelek Ataunen (Gipuzkoa). Baserriera ganaduarentzako bazka jaitsi behar zuen Artaditxuloko semeak, eta beste zenbait lekutan materiala airetik garraiatzeko asmatutako kable-sistema bera erabiltzea bururatu zitzaion. Belar kableari kable “loco” ere deitu izan zitzaion, dinbili-danbala jaisten baitzen fardela, kable finkoan behera. Belarra, orbela edo sutarako zotzak jaisteko erabili zuten batez ere, “txirrika” deituriko gurpil baten bidez.

Belar kableak arrakasta Ataunen izan zuen nagusiki –guztira 197 kable bota zituzten eta gaur egun oraindik aztarna ugari geratzen dira–. Beste leku batzuetan, harria edo itsasoko algak biltzeko ere jarri izan zen kablerik. Egur kablea, aldiz, Pirinioetan erabili zen gehien. Egurra garraiatzeko ingeniari lan handiagoa suposatzen zuen, baina horretan ere iaioa omen gure Eskisabel. Hain zuzen, berak bota zuen Ernioko mazeletan bost urtez aritu zen kablea.

Ernioko kablearen planoak. Goiko irudian, kable-sistemaren desnibela. Behekoan, “astoa”, kablea airean eusteko egurrezko plataforma.


betean egur-ikatzza ezinbestekoa zen ordea, hirian hain eskasa zen ogi zuria egiteko. Ez da harritzekoa beraz, Erniopeko basoak ustiatzeko formula bila hasi izana inguruko biztanleak.

Alkizako Pello Joxe Aranburu etnohistorialariak ikertu ditu Ernioko kableari buruzkoak, beraien aita baitzen ustiapenaren sozioetako bat. Bixente Eskisabel ordurako ezaguna zen kablelari gisa eta harengana jo zuten. 1945ean hasi ziren kablearekin lanean, bakoitzak 25.000 pezetako (100 libera) kapitala jarri eta gero.

4.000 metroko kablea Asteasuraino

Hiru urtetan, Illardegi izeneko basotik ia 4.500 tona egur atera zituzten ikatzetarako. Horretarako, 4.000 metro pasako kable zuzena jarri behar izan zuen Eskisabelek Konporta baserriraino. Pello Errota bertsolariaren jaiotetxea zen hura, eta bertan zegoen zerrategia –gaur egun desagerturik daude, zerrategia eta baseria bera–.


Egur kablearen funtzionamendua belarrerekoa baino konplikatuagoa zen: kable finkoak beste kable biratzaile baten laguntza behar zuen. Horrela, egur karga jaisten zen bitartean, basomutilentzako janaria eta materiala igotzen zuen kontrakargan. Erniokoak 28.000 kiloko zama jasan zezakeen guztira eta leku batzuetan ia 500 metroko altuera hartzen zuen kableak, baina normalean lurzorutik metro eskas batzuetara egoten zen “astoa” deituriko parapeto batzuen bidez eutsita.



Gerraosteko ogi zuria egiteko egur-ikatzza Ernion

Ernioko malkarretan bildurik, Itzuregi izeneko parajeetan, baso zabalak zeuden, pagalizar eta pago mugarrotuz osatuak gehienean. Egurretarako bikainak. Baina Pirinioetan bezalaxe, esplotatzeko zaila zen maldazar hura. Gerraoste

Nikasio eta Miguel Eskisabel: "Gure aita errespetuko gizona zen"



Lazkaon (Gipuzkoa) egin dugu hitzordua, Agauntza ondoan. Nikasio eta Miguel Eskisabel beren aita kable botatzen aritu zen garaiaz gustora aritu dira berriketan. Miguel ere aritu izan zen aitarekin lanean Pirinio inguruetan; Nikasio gutxiago, baina ondo ikasi zuen teknika, eta memoria fresko dauka oraindik.

Kablea: asmakizun handia

Bixente Eskisabel (1899-1956) Artaditxulo baserrian jaio zen, Ataunen. San Gregorioko eskolan ibili zen baina baserriko seme bakarra izaki, laster hasi zen etxerako beharrea, soldadutzatik ere horregatik libratu omen zen. Segalari bikaina, apustu batzuetan ere aritu zen ataundarra.

Ez dakigu nondik okurritu zitzaion kablea baserri lanerako aplikatzea, baina haren semeek diote bere kabuz ikasi zuela: "Bere kasa hasi zian, ez beste inon. Baina kablea han sartzea samurra zuan", dio Nikasiok, Iratiko egur-kable erraldoiak gogoan. Lehen kablea hogei urte zituela jarri zuen, ondoren beste sei kable bota zituen etxerako eta batek daki zenbat kanporako. Bi anaien iritziz garrantzi handia izan zuen Ataunen Eskisabelen sistemak, "asmakizun handia izan zuan garai hartarako".

Baserri lanetik basoko industriari

Noiz hasi zen Irati inguruan egur kableak jartzen? *El Irati* enpresako arduradunen bat joan omen zen Eskisabeli proposamena egitera, gogoan du Nikasiok hori: "Esaten ziaten Irati mendian ez zegoela egurrik ateratzerik, erreka zuloetatik nola aterako ziaten ba? Kablearekin!". Materiala emanez gero lortuko zuela esan zuen Eskisabelek eta besteak beste, 14 km-ko kablea bota zuen Orotz-Betelun (Nafarroa), lehenik gora, gero behera, kurba eginez... benetako ingeniari lana. Talentua zuen Artaditxulokoak, langilea baitzen eta erres-

petuko gizona: "Etxera etortzen zenean saguak zuloetan bezala ezkutatzen gintuan haren beldurrez!", diote Nikasio eta Miguelek.

Heriotza iluna Iruñean

Egur kableak sartzen diru mordoxxa bat egin zuen. Egin kontu, herrian bi auto zeuden eta horietako bat berea. Baina dirua manejatzeak ez zion onik ekarri. Aitak sukaldean esandako azken hitzak gogoan ditu Nikasiok: "Niri jendeak eskatu egiten zidak eta nik eskatu beharra zeukeat". Zor bat kobratu nahian alde egin eta hurrengo egunean hilik aurkitu zuten Iruñean. Ez zen inoiz argitu.

Baina historia honek badu epilgorik. Eskisabel hil eta gutxira Iratiko ingeniari batzuk agertu ziren txofer eta guzti Ataungo base-rrira: "Gurekin oso ondo portatu zen eta tori diru hau" esan zioten emazteari. Miguelek aitaren lanbideari ekin zion ondoren: "Mendira kableak puskaka eraman eta han elkarri lotzen nitian". Azkeneko kablea 1954an bota zuten, Huescako Sarvise herrian.

Goiko erretratoan Bixente Eskisabel, Eskuinean: Nikasio eta Miguel, haren semeak. Kablegintzan aritu izan ziren biak ere.



Istripua Konportako zerrategian

Kablea montatzeak eta baso lanak langile asko mugitu zituen: kablelari, basomutil, itzain, zerratzaile... Guztira 40 bat lagun bai. Horieta-ko bat, Jose Etxarri, istripuz hil zen Konportako zerrategian, pago-buruak dinamitz lehertzen ari zela. Zendu berri den Asteasuko Jazinto Irazu trontza lanean ibili zen Konportan eta gogoan zuen heriotza hura. Basoan aldiz, Etxa-

rri-Aranazko gazteak aritzen omen ziren, "zezena bezalakoak", zioen Irazuk.

1948 urte bukaeran, kablea karreetetan jaso eta langileekin afari bat egin ostean, egur esplotazioarekin amaitu zuten. Hala ere, enpresa ez zen 1950 arte desegin. Ernioko kablearen arrastorik ez da geratzen gaur egun, pista eta *todoterreroen* erreinaldian gauden honetan, aspaldiko kontua da hori. ■

